# 4

# DONOSTIA ENTREMUNDOS
# SAN SEBASTIÁN MUNDUEN ARTEAN

AZAROA, ABENDUA / NOVIEMBRE, DICIEMBRE / 2008



2 HITZALDIA **MUNDU SOLIDARIO BATEN ALDEKO EKINBIDE POSIBLEAK**
CHARLA **ACCIONES POSIBLES PARA UN MUNDO SOLIDARIO**

3 LANTEGIAK **MUNDUA EGIARA ETA EGIATIK MUNDURA**
TALLERES **EL MUNDO A EGIA Y DESDE EGIA AL MUNDO**

4 JARDUNALDIAK **GERRA AUZIGAI-BOSNIAKO ESPERIENTZIATIK ABIARAZITAKO GOGOETAK**
JORNADAS **LA GUERRA EN CUESTION REFLEXIONES A PARTIR DE LA EXPERIENCIA**

5 LANTEGIAK **JOLASTEN NAIZ, BERAZ, BANAIZ**
TALLERES **JUEGO, LUEGO EXISTO**

6 LANTEGIA **FAMILIAN EGITEKO JOLAS KOOPERATIBOAK**
TALLER **JUEGOS DE COOPERACIÓN EN FAMILIA**

7 LANTEGIAK **TOLERANTZIAREN ETA HAURRAREN NAZIOARTEKO EGUNAK**
TALLERES **DÍAS INTERNACIONALES DE LA TOLERANCIA Y DE LA INFANCIA**

8 LANTEGIA **IPAR-HEGOA EMAKUMEEN LANTEGIA**
TALLER **MUJERES NORTE-SUR**

9 SALAKETA KANPAINA **ISILTASUNARI AURRE**
CAMPAÑA DE DENUNCIA **DESAFIANDO EL SILENCIO**

10 TOPAKETAK **INDIGENISMOAREN INGURUAN**
ENCUENTROS **SOBRE INDIGENISMO**

11 **KAEBNAI AZOKA**
**ZOCO KAEBNAI**

12 **IPAR-HEGOA JARDUNALDIAK**
**JORNADAS NORTE-SUR**

13 BIDEO-FORUMA **HAURTZAROA ETA EMAKUMEAK EKUATORE GINEAN**
VIDEO-FORUM **INFANCIA Y MUJER EN GUINEA ECUATORIAL**

14 ERAKUSKETA-EMANALDIA **HISTORIAS PRODUSIDAS**
EXPOSICIÓN-PROYECCIÓN **HISTORIAS PRODUSIDAS**

15 LANTEGIA **HIESA AFRIKAN**
TALLER **EL SIDA EN ÁFRICA**

16 LANTEGIAK **GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA**
TALLERES **DIA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS HUMANOS**

17 MAHAI-INGURUA **BESTE URRATS BAT GIZA ESKUBIDEAK URRATZEAREN ALDE**
MESA REDONDA **UN PASO MÁS HACIA LA VULNERACIÓN DE LOS DDHH**

18 **SAHARAR HENNA TAILERRA ETA TE DASTAKETA**
**TALLER DE HENNA SAHARAUI Y DEGUSTACIÓN DE TE**

19 LANTEGIAK **GUZTION MUNDUA**
TALLERES **EL MUNDO DE TODOS Y DE TODAS**

20 **SOLIDARITZA EGUNA**
**DÍA DE LA SOLIDARIDAD**

21 HITZALDIA **HAURTZAROA ETA EMAKUMEAK GUATEMALAN**
CHARLA **INFANCIA Y MUJER EN GUATEMALA**

22 ARGAZKI LEHIAKETA **INTEGRAZIOA ETA KULTURARTEKOTASUNA**
CONCURSO DE FOTOGRAFÍA **INTEGRACIÓN E INTERCULTURALIDAD**

23 JAIALDI SOLIDARIOA **BI IPUIN GAZI-GOZO**
FESTIVAL SOLIDARIO **DOS CUENTOS AGRIDULCES**

24 **PALESTINAKO GATAZKAREN ARRAZOIAK**
**LAS CAUSAS DEL CONFLICTO PALESTINO**

25 **GGKEEI OMENALDIA**
**HOMENAJE A LAS ONGD**

26 ERAKUSKETA **SAHARAKO BEGIAK**
EXPOSICIÓN **OJOS DEL SAHARA**

27 **ABESBATZA-KONTZERTU SOLIDARIOA**
**CONCIERTO CORAL SOLIDARIO**

28 **UNICEF KONTZERTUA**
**CONCIERTO UNICEF**

HITZALDIA

## MUNDU SOLIDARIO BATEN ALDEKO EKINBIDE POSIBLEAK

Pobreziaren eta Gosetearen Aurkako jardunaldien baitan, Estrasburgoko Institutuko eta Madrileko Unibertsitate Autonomoan Nazioarteko eta Afrikar Harremanetako Irakasle Mbuy Kabunda Badi doktoreak zenbait hitzaldi emango ditu Saharaz Hegoko Afrikan lankidetzaren jardunbidea ezagutarazi eta hari buruzko eztabaida bideratzearren.
Bestetik, azken hiruhilabete honetan Haurralde Fundazioak berriro ekiten dio boluntarioen formazio ikastaroen urteroko edizioari.

Noiz: azaroaren 3an
Ordua: 10:00/13:30-16:30/19:30
Non: Dr. Camino Aretoa. Abuztuaren 31ko kalea, 36

Noiz: azaroaren 4an
Ordua: 16:30-19:30
Non: Psikologia fakultatean EHU

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 21
E-maila: ong@haurralde.org

CHARLA

## ACCIONES POSIBLES PARA UN MUNDO SOLIDARIO

Dentro de las jornadas de sensibilización Combatir la Pobreza y el Hambre: el Dr. Mbuy Kabunda Badi (Profesor del Instituto de Estrasburgo y de Relaciones Internacionales y Africanas en la UAM), impartirá distintas charlas para dar a conocer y propiciar un espacio de debate respecto al trabajo de la cooperación en el África Subsahariana.
Por otro lado, en este último trimestre Haurralde Fundazioa comienza nuevamente con la edición anual de cursos de formación y voluntariado.

Día: 3 de noviembre
Hora: 10:00/13:30-16:30/19:30
Lugar: Sala Dr. Camino. C/31 Agosto, 36

Día: 4 de noviembre
Hora: 16:30-19:30
Lugar: Facultad Psicología UPV

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 21
E-mail: ong@haurralde.org



LANTEGIAK

## MUNDUA EGIARA ETA EGIATIK MUNDURA

Hara! Aurpegi berri bat! Pertsona beltz batekin gurutzatzen naiz azken boladan… berria izango al da auzoan? Hara! Denda berri bat, produktu txinatarrekin! Hara! Kebab bat! Nongoak izango dira? Pakistan? Turkia? India? Hara! Parkean ume berriak! Nondik etorriko ote ziren? Beti ez dugu izaten munduko herri ezberdinak ezagutzeko aukera. Baina jende asko, munduko txoko ezberdinetatik gurera hurbildu da! Auzoan arnas berriak somatzen dira, kalean aurpegi berriak daude. Ezagutu dezagun mundua beraien bidez, ezagutu ditzagun gure bizilagun berriak!

Noiz: Azaroaren 4, 7, 18, 21, 29 an eta abenduaren 12an
Non: Egiako Gaztelekuan

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 29 80 31
E-maila: gazteleku_egia@donostia.org

TALLERES

## EL MUNDO A EGIA Y DESDE EGIA AL MUNDO

Vaya! Una nueva cara! Últimamente me cruzo con una persona negra… será nueva en el barrio? Vaya! Una tienda nueva con productos chinos! Mira, un kebab! De dónde serán? Pakistan? Turquía? India? Mira! Niños y niñas nuevas en el parque! De dónde habrán llegado? No siempre tenemos la oportunidad de conocer pueblos nuevos. Sin embargo mucha gente ha llegado a nosostros desde distintos rincones del mundo. Se nota un nuevo aire en el barrio, hay nuevas caras en la calle. Conozcamos el mundo a través de ellos y ellas, conozcamos a nuestros nuevos vecinos y vecinas!

Fecha: El 4, 7, 18, 21, 29 de noviembre y el 12 de diciembre
Lugar: Gazteleku de Egia

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 29 80 31
E-mail: gazteleku_egia@donostia.org



## JARDUNALDIAK
## GERRA AUZIGAI-BOSNIAKO ESPERIENTZIATIK ABIARAZITAKO GOGOETAK

Zer da gerra? Nola prestatzen da? Nola garamatzate hartara? Zergatik gertatzen dira? Egia non den jakin dezakegu? Zer gertatzen da bukatzen denean? Nola gainditzen dute biktimek? Eta kriminalek? Kalteak konpontzerik ba al dago? Justizia egiterik ba al dago?
Gazteei eta publiko orokorrari zuzendutako jardunaldi hauetan Bosniako esperientzia, Srebrenica, Sarajevo eta Gorazdetik etorritako lagunek zuzenean kontatuko dute. Gerren kausen eta ondorioen inguruan gogoeta kritikoa sustatu nahi da. Partaidetza-tresnen bitartez gazteek gai hauei guztiei buruz hausnarketa egin ahal izango dute.

Noiz: azaroaren 8, 15, 22, 29 eta 30.
Non: Lizardi Elkartegunea-Lizardi bidea 25 (Intxaurrondo)
Ordutegia: 10:00-13:30 eta 16:00-19:00

SOS BALKANES
Tel.: 630 461 107-660 385 626
E-maila: jardunaldiak.sosbalkanes@gmail

## JORNADAS
## LA GUERRA EN CUESTION REFLEXIONES A PARTIR DE LA EXPERIENCIA

¿Qué es la guerra? ¿Cómo se prepara? ¿Cómo nos conducen a ella? ¿Por qué se producen? ¿Podemos saber dónde está la verdad? ¿Qué ocurre cuando acaba? ¿Cómo lo superan las víctimas? ¿Y los criminales? ¿Puede evitarse la guerra? ¿Es posible reparar los daños? ¿Es posible hacer justicia?.
En estas jornadas dirigidas a jóvenes y público en general la experiencia bosnia será contada de primera mano por personas venidas de Srebrenica, Sarajevo y Gorazde. Pretenden fomentar una reflexión crítica en torno a las causas y consecuencias de las guerras. Mediante herramientas de trabajo participativas se podrá reflexionar sobre todos estos temas.

Fecha: 8, 15, 22, 29 y 30 de noviembre
Lugar: Lizardi Elkartegunea-Camino Lizardi, 25 (Intxaurrondo)
Horario: 10:00-13:30 y 16:00-19:00

SOS BALKANES
Tel: 630 461 107-660 385 626
E -mail: jardunaldiak.sosbalkanes@gmail



LANTEGIAK
## JOLASTEN NAIZ, BERAZ, BANAIZ

Martuteneko haurtxokoak 6-12 urte bitarteko umeentzat lantegi batzuk antolatu ditu. Bizikidetzarako jokoak: zenbait jokoren bitartez umeen elkarbizitza familiarekin eta auzokoekin landuko da, jatorri ezberdineko umeekin elkarbizitza indartuz.
Munduko jokoak: egun honetan Afrikako joko tradizionalak ezagutuko dituzte, honela, Haga-Gaban eta Don Don Ba Ji-an jolastuko dira, eta era berean, herri aparta honen kultura pixka bat gehiago ezagutuko dute.

Noiz :azaroaren 14an eta 20an
Non: Martuteneko Haurtxokoa
Ordua: 17:00-18:30 / 17:00-20:00

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 48 33 64
E-maila: haurtxoko_martutene@donostia.org

TALLERES
## JUEGO, LUEGO EXISTO

El Haurtxoko de Martutene ha organizado distintos talleres para niños y niñas de 6 a 12 años. Juegos para la convivencia: mediante varios juegos se trabajará el tema de la convivencia de los niños y niñas en la familia, el barrio, reforzando así la convivencia entre los niños y niñas de distinta procedencia.
Juegos del mundo: este día se hará un repaso de los juegos tradicionales de África y se jugará a Haga-Gaba y a Don Don Ba Ji, conociendo así un poquito más la cultura de este gran país.

Día :14 y 20 de noviembre
Lugar: Haurtxoko de Martutene
Hora: 17:00-18:30 / 17:00-20:00

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 48 33 64
E-mail: haurtxoko_martutene@donostia.org



LANTEGIA
## FAMILIAN EGITEKO JOLAS KOOPERATIBOAK

6 eta 10 urte bitarteko umeentzako eta haien gurasoentzako lantegia.
Lantegiak honako helburuak ditu: batetik, gurasoei eta hezitzaile mota guztiei jakinaraztea zer balio lantzen diren lankidetza-jolasen bidez eta, bestetik, tolerantzia eta lankidetza bizitzea familia barruan.

Noiz: azaroaren 15ean
Ordua: 16:30-19:30
Non: Intered-Euskal Herria. Bengoetxea 4 kalea, behea.
Izen-ematea: deitu 943 29 38 47-943 29 19 86 telefonora
Prezioa: 4 euro

INTERRED EUSKAL HERRIA_FUNDAZIOA
Tel.: 943 29 38 47-943 29 19 86
E-maila: intered@euskalnet.net
www.kometak.com

TALLER
## JUEGOS DE COOPERACIÓN EN FAMILIA

Taller dirigido a niños y niñas de 6 a 10 años y a sus padres y madres. Los objetivos de este taller son por un lado, dar a conocer entre padres, madres, educadores y educadoras en general los valores que aportan los juegos cooperativos y, por otro, vivir una experiencia de tolerancia y cooperación en el ámbito familiar

Día: 15 de noviembre
Hora: 16:30-19:30
Lugar: Intered-Euskal Herria. C/Bengoetxea bajo
Inscripción: llamando al teléfono 943 29 38 47-943 29 19 86
Precio: 4 euros

INTERRED EUSKAL HERRIA-FUNDAZIOA
Tel.: 943 29 38 47-943 29 19 86
E-mail: intered@euskalnet.net
www.kometak.com



## AZAROAREN 15A, TOLERANTZIAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## AZAROAREN 20A, HAURRAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## 15 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL DE LA TOLERANCIA

## 20 DE NOVIEMBRE, DÍA INTERNACIONAL DE LA INFANCIA

LANTEGIAK

### TOLERANTZIAREN ETA HAURRAREN NAZIOARTEKO EGUNAK

Amarako Haurtxokoak eta Antiguako Haurtxoko eta Gaztelekuak ume eta gazteei zuzendutako lantegi batzuk prestatu dituzte bi egun hauen inguruan. Tolerantziaren Nazioarteko Egunean “Mila aurpegi tolerantziaren alde” lantegia egingo da, eta Haurren Nazioarteko Egunean, umeek jolasteko eta ondo pasatzeko duten eskubidean oinarrituta, kultura ezberdinak ezagutuko dira jokoaren bitartez

Noiz: azaroaren 15ean Antiguoko Haurtxoko eta Gaztelekuan
Ordua: 16:30-17:30 eta 18:30-19:30

Noiz : azaroaren 20ean Amarako Haurtxokoan
Ordua: 17:00-18:30 eta 18:30-19:30

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tlf: 943 48 19 44
E-maila: haurtxoko_amara@donostia.org

TALLERES

### DÍAS INTERNACIONALES DE LA TOLERANCIA Y DE LA INFANCIA

Los Haurtxokos de Amara y Antiguo, y el Gazteleku de este, han preparado diversos talleres para niños, niñas y jóvenes en torno a dos fechas señaladas. El Día Internacional de la Tolerancia se llevará a cabo el taller “Mil rostros para la tolerancia” y el Día mundial de la Infancia, basándose en el derecho de los niños y niñas a divertirse y jugar se conocerán otras culturas mediante el juego.

Día: 15 noviembre en Haurtxoko y Gazteleku del Antiguo
Hora: 16:30-17:30 y 18:30-19:30

Día :20 noviembre en Haurtxoko da Amara
Hora: 17:00-18:30 y 18:30-19:30

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 48 19 44
E-mail: haurtxoko_amara@donostia.org



LANTEGIA
## IPAR-HEGOA EMAKUMEEN LANTEGIA

Haurralde, Malen Etxea eta Decebal elkarteek emakume etorkinen topaketa bat antolatu dute. Gune hau, gure kulturez, errealitateez eta beste hamaika gaiez hitzegiteko lekua izango da. Ondoren anaitasun bazkari bat eskeiniko da.

Noiz: azaroaren 16ean
Non: Errumaniar etorkinen Decebal elkartean

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 21
E-maila: ong@haurralde.org

TALLER
## TALLER DE MUJERES NORTE-SUR

Las organizaciónes Haurralde, Malen Etxea y Decebal organizan un encuentro de mujeres inmigrantes, un espacio, para hablar de nuestras culturas, realidades… Posteriormente se ofrecerá una comida de confraternidad.

Día: 16 de noviembre
Lugar: Asociación Decebal de inmigrantes rumanos

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 21
E-mail: ong@haurralde.org



SALAKETA KAMPAINA

## ISILTASUNARI AURRE: 365 EGUNEZ EKIN ETA SALATU GATAZKA ARMATUAK ETA BERAUEK EMAKUME ETA HAURRENGAN DITUZTEN ERAGINAK

Kanpaina honen helburu nagusia indarkeria mota oro salatzea da eskuarki, eta bereziki herrialde pobretu eta gainera gatazka armaturen bat nozitutakoetan emakume eta neskatilek pairatzen duten indarkeria sexuala.
Kanpainak bestelako asmoak ere baditu, hala nola iritzi publiko hobeki informatua sortzen laguntzea; halaber, komunikabideen profesionalei informazioa helaraztea ere bilatzen du, sexu indarkeriaz, generoaz eta justizia unibertsalaz jardutekorakoan gaia erabili eta plazaratzeari buruz, hain zuzen. Ekimen honen bitartez komunikabideek indarkeriaren edo gatazka belikoen biktima izandako emakume eta haurren gaiari eskaintzen dioten arreta eta trataera informatzailea hobetu nahi da.

Noiz: azaroaren 24 eta 25
Non: Miramar Jauregia

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 22
E-mail: ong@haurralde.org

CAMPAÑA DE DENUNCIA

## DESAFIANDO EL SILENCIO: 365 DÍAS DE ACTIVISMO Y DENUNCIA SOBRE LOS CONFLICTOS ARMADOS Y SUS REPERCUSIONES EN LAS MUJERES Y NIÑOS/NIÑAS

El objetivo principal de esta campaña es denunciar todos los tipos de violencia, en especial las situaciones de violencia sexual que sufren las mujeres y niñas en los países empobrecidos y que, además, han sufrido algún tipo de conflicto bélico.
La campaña también pretende contribuir a generar una opinión pública mejor informada, y, a su vez, proporcionar información a diversos profesionales de la comunicación sobre el trato y manejo en materia de violencia sexual, género y justicia universal. Con esta iniciativa se quiere mejorar la atención y cobertura de trato de los medios de comunicación en el el tratamiento informativo de las mujeres y niños/as víctimas de violencia, o conflictos bélicos.

Fecha: 24 y 25 de noviembre
Lugar: Palacio Miramar

HAURRALDE FUNDAZIOA
Tel.: 943 24 66 22
E-mail: ong@haurralde.org



## TOPAKETAK INDIGENISMOAREN INGURUAN

Mundubat fundazioak topaketa hauetan ikuspegi ezberdinetatik jorratuko du mugimendu indigenaren gaia. Txile, Guatemala, Bolivia, Kolonbia, Txiapas eta Nikaraguatik heldutako gizon eta emakumeek parte hartuko dute. Honako gaiak landuko dira: Mugimendu indigenak eta emakumeak, Lurraren ustiaketa eta lurraldearekiko eskubidea, Nortasun kolektiboen iraupena globalizazio kulturalaren aurrean, Mugimendu indigenen egoera Latino Amerikan eta hauen erresistentzia moduak

Noiz: azaroaren 22 eta 23an
Non: Miramar Jauregian

MUNDUBAT FUNDAZIOA
Tel.: 943 29 75 16
E-maila: emintegi@mundubat.org

## ENCUENTROS SOBRE INDIGENISMO

La Fundación Mundubat ha organizado un encuentro que abordará el tema de los movimientos indígenas desde distintas perspectivas. Participarán mujeres y hombres llegados desde Chile, Guatemala, Bolivia, Colombia, Chiapas, y Nicaragua. Se trabajarán temas como los Movimientos Indígenas y las Mujeres, la explotación de la Tierra y el Derecho sobre el Territorio, el mantenimiento de las Identidades Colectivas ante la Globalización Cultural, la situación de los Movimientos Indígenas en Latinoamérica y sus formas de resistencia.

Fecha: 22 y 23 de noviembre
Lugar: Palacio Miramar

FUNDACIÓN MUNDUBAT
Tel.: 943 29 75 16
E-mail: emintegi@mundubat.org



## KAEBNAI AZOKA

KAEBNAIk berriro dakarkigu kulturarteko Azoka, elkartruke, elkarbizitza eta gogoetarako topalekua. Kultura desberdinak batzen dituen proiektu honetako aktibitateetan hezitzaileek, gurasoek, ikasleek, irakasleek eta interesa duen orok parte har dezakete. Tailer dinamiko eta parte-hartzaileetan, Ijito Komunitatearen, Giza Eskubideen eta Kulturartekotasunaren hainbat alde jorratu dira. Edizio honetan Kulturen arteko elkarrizketari erreparatuko zaio bereziki.

Noiz: azaroaren 24tik 28ra eta abenduaren 1etik 5era
Non: María Inmaculada Zentroa. Ategorrieta kalea, 17. Gros
Ordutegia: Goizez 9:00etatik 13:00etara (aldez aurretik izena emandako ikastetxeak besterik ez). Arratsaldez 16:00etatik 19:00etara (elkarte, talde eta publiko orokorrari zabalik)

KAEBNAI
Tel.: 943 57 80 32
E-maila: kaebnai@gmail.com

## ZOCO KAEBNAI

KAEBNAI nos trae una vez más su Zoco intercultural, lugar de intercambio, convivencia y reflexión. Culturas diferentes unidas en un proyecto común de cuyas actividades van a poder participar educadores y educadoras, padres, madres, alumnado, profesorado y todas aquellas personas que estén interesadas. En sus talleres, dinámicos y participativos, se trabajarán distintos aspectos de la comunidad gitana, los derechos humanos y la interculturalidad, haciendo especial hincapié, en esta edición, en el diálogo intercultural.

Fecha: 24-28 noviembre y 1-5 diciembre
Lugar: Centro María Inmaculada. C/ Ategorrieta 17. Gros
Horario: Mañanas de 9:00 a 13:00 (solo visitas de centros escolares inscritos previamente. Tardes de 16:00 a 19:00 (abierto a asociaciones, grupos y público en general)

KAEBNAI
Tel.: 943 57 80 32
E-mail: kaebnai@gmail.com



## IPAR-HEGOA JARDUNALDIAK

Ipar/Hegoa jardunaldiek iparretik eta hegoaldetik etorritako eragileen topaketa gunea izan nahi dute. Hitzaldi, eztabaida, film eta abarren bitartez beste errealitate batzuk ezagutarazi nahi ditugu, eta baita hausnarketa bultzatu eta Hegoaldeko erakunde batzuk emakumeen presentzia aktiboan garatzen ari diren eskarmentutik ikasgaiak atera ere. Gurekin Latino Amerikatik, Bosniatik, eta beste zenbait lekutatik etorritako emakumeak egongo dira.

Liburuxka berezi baten bidez egitarau, leku eta parte hartzaileen berri emango da

BERDINTASUN ETA LANKIDETZA ATALA
Tel.: 943 48 10 98

## JORNADAS NORTE-SUR

Las jornadas Norte/Sur pretenden ser un espacio de encuentro entre agentes llegados desde el norte y el sur. A través de charlas, debates, películas… pretendemos conocer otras realidades, fomentar la reflexión y extraer aprendizajes a partir de las experiencias que ciertas organizaciones del Sur están desarrollando con la presencia activa de las mujeres. Estarán con nosotros y nosotras mujeres de Latinoamérica, de Bosnia…

La edición de un folleto especial informará de los programas, lugares y participantes

SECCIÓN DE IGUALDAD Y COOPERACIÓN
Tel.: 943 48 10 98



BIDEO-FORUMA

## HAURTZAROA ETA EMAKUMEAK EKUATORE GINEAN

Kristobaldegiko emakume erlijiosoek Ekuatore Ginean egiten duten lana erakutsiko digute, emakumearen arloan egiten dutena bereziki. Bestalde Unicefeko ordezkari batek herri honetako —petrolio asko duen herria baina era berean txirotasun tasa izugarriak dituena— haur eta nerabeen egoera azalduko digu. Javier Fesserren "Binta y la Gran Idea" film laburra emango da, nesken hezkuntzak zein garrantzia duen azpimarratzen duena.

Noiz: azaroaren 26an
Lugar: Larrotxene Kultur Extean
Ordua: 19:00

UNICEF, HIRUGARREN ADINA HIRUGARREN MUNDURAKO
Tel.: 943 29 11 44
E-mail: elkarteak@euskalnet.net

VIDEO-FORUM

## INFANCIA Y MUJER EN GUINEA ECUATORIAL

Las religiosas de Kristobaldegi nos darán a conocer el trabajo que llevan a cabo en Guinea Ecuatorial, especialmente en el campo de la promoción de la mujer. Por otro lado, una representante de Unicef nos hará una radiografía de la infancia y adolescencia en este mismo país, tan rico en petróleo pero con unas incríbles tasas de pobreza. Se proyectará el corto de Javier Fesser "Binta y la Gran Idea" que incide sobre la necesidad de la educación de las niñas.

Día: 26 de noviembre
Lugar: Centro Cultural Larrotxene
Hora: 19:00

UNICEF, HIRUGARREN ADINA HIRUGARREN MUNDURAKO
Tel.: 943 29 11 44
E-mail: elkarteak@euskalnet.net



ABENDUAREN 1A, HIESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

1 DE DICIEMBRE, DIA INTERNACIONAL DE LUCHA CONTRA EL SIDA

## ERAKUSKETA-EMANALDIA
## **HISTORIAS PRODUSIDAS**

Sexu osasuna, hiesa eta garapena zenbait ekintza biltzen dituen proiektua da. Abenduaren 1ean, Hiesaren aurkako nazioarteko egunean, Historias Produsidas eskainiko da. Film laburren bilduma honek modu berezian jorratzen du gaixotasun honen egoera Afrikan eta Latino Amerikan. Emanaldi hauek adituak dinamizatutako solasaldi batekin batera egingo dira. Egun horretan bertan "Hiesa: 8 artista, 8 hausnarketa" inauguratuko da; honek, arteak herri behartsuenetan hiesarekiko duen konpromisoa islatuko du.

Erakusketa:
Noiz: Abenduaren 1, 2 eta 3
(Inaugurazioa: abenduaren 1ean, 17.00 tan)
Non: Victoria Eugenia (sarrera Okendo plazatik)
Ordutegia: 10:00-14:00 eta 17:00-19:00
Laburmetraien emanaldia:
Noiz: abenduaren 1a
Lugar: Antzoki Zaharra
Ordua: 19:00

MEDICUSMUNDI GIPUZKOA
Tel.: 943 40 47 40
gipuzkoa@medicusmundi.es

## EXPOSICIÓN-PROYECCIÓN
## **HISTORIAS PRODUSIDAS**

Salud sexual, sida y desarrollo es un proyecto que contempla diversas actividades. Coincidiendo con el 1 de diciembre, Día Internacional contra el Sida, se proyectará Historias produsidas, una recopilación de varios cortometrajes que plasman, de manera original, la realidad de esta enfermedad en África y Latinoamérica. Su proyección irá acompañada de una charla-coloquio dinamizada por expertos en el tema. Ese día también se inaugurará la exposición "Sida: 8 artistas, 8 reflexiones", que refleja el compromiso del arte con el VIH/Sida en los países más pobres.

Exposición:
Días: 1, 2 y 3 de diciembre
(Inauguración: 1 de diciembre, 17.00 horas)
Lugar: Victoria Eugenia (sala entrada por la Plaza Oquendo)
Horario: de 10:00-14:00 y de 17:00-19:00
Proyección de cortometrajes:
Día: 1 de diciembre
Lugar: Teatro Principal
Hora: 19:00 horas

MEDICUSMUNDI GIPUZKOA
Tel.: 943 40 47 40
gipuzkoa@medicusmundi.es



## LANTEGIA
## **HIESA AFRIKAN**

HIESa munduak jasandako pandemia larrienetako bat da. 7 milioi gaixoren %70a Afrikako Saharaz azpiko herrialdeetan dago. Datu suntsitzaile honek, Afrikak bizi duen egoera krudela agerian uzten du, non herri batzuetan biztanleriaren %30etik gora kutsatuta dagoen. Stephanie Nolenek 13-17 urte bitarteko gazteei, beren herrian gertatutako zenbait gertaera kontatuko dizkie.

Noiz: Abenduaren zehar
Non: Amarako Gaztelekuan
Ordua: 17:00-20:30

Noiz: Abenduaren zehar
Non: Antiguako Gaztelekuan
Ordua: 18:30 a 21:00

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 48 19 44
E-maila: haurtxoko_amara@donostia.org



## TALLER
## **EL SIDA EN ÁFRICA**

El Sida es una de las pandemias más terribles de la historia de la humanidad. Entre los 37 millones de personas enfermas el 70 % se encuentra en el África Subsahariana. Este dato devastador, revela la cruel situación que está viviendo África, donde algunos países tienen más de un 30% de la población infectada. Stephanie Nolen narrará a jóvenes de 13 a 17 años algunas de las duras historias acontecidas en su tierra.

Fecha: Durante el mes de Diciembre
Lugar: Gazteleku de Amara
Hora: 17:00-20:30

Fecha: Durante el mes de Diciembre
Lugar: Gazteleku del Antiguo
Hora: 18:30 a 21:00

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 48 19 44
E-mail: haurtxoko_amara@donostia.org



ABENDUAK 10, GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

10 DE DICIEMBRE, DIA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS HUMANOS

LANTEGIAK
## GIZA ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO EGUNA

6-12 bitarteko umeak, asmakizun eta joko talde dinamika ezberdinen bitartez, beraien eskubideak defendatzen eta beste umeenak errespetatzen ikasiko dute. 13-17 urte bitarteko gazteek Rap eta bertsoen bidez Giza Eskubideen gaia jorratuko dute.
Halaber, Tierra de Hombres fundazioak 9-12 urte bitarteko umeentzat ipuin kontalari bat ekarriko du.

Noiz: Abenduaren 10ean
Non: Amarako haurtxokoan 17:00-18:30 y 18:30-19:30
Amarako Gaztelekuan 18:30
Antiguako haurtxokoan 16:00 a 18:00

Noiz: Abenduaren 13an. Ipuinkontaketa
Non: Antiguako haurtxokoan 16:00-18:00

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 48 19 44
E-mail: haurtxoko_amara@donostia.org

TALLERES
## DIA INTERNACIONAL DE LOS DERECHOS HUMANOS

Niños y niñas de entre 6 y 12 años aprenderán mediante juegos, adivinanzas, y distintas dinámicas de grupo a defender sus derechos y a respetar los de otros niños y niñas. Los y las jóvenes de 13 a 17 años, a través del rap y los bertsos, abordarán el tema de los Derechos Humanos.
Asímismo la Fundación Tierra de Hombres traerá un contacuentos para los niños y niñas de 9 a 12 años.

Día: 10 de Diciembre
Lugar: Haurtxoko de Amara 17:00-18:30 y 18:30-19:30
Gazteleku de Amara 18:30
Haurtxoko del Antiguo 16:00 a 18:00

Día: 13 Diciembre. Cuentacuentos
Lugar: Haurtxoko del Antiguo 16:00-18:00

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 48 19 44
E-mail: haurtxoko_amara@donostia.org



MAHAI-INGURUA

## URRATS BAT GEHIAGO GIZA ESKUBIDEEN URRATZEAN

EB-REN KOMUNITATEAZ KANPOKO JENDEA EGOZTEKO POLITIKA BERRIAK

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 60. urteurrenean, gaur egun EB-ren komunitateaz kanpoko pertsonak atxilotu eta egozteko politika berrien baitan gordetzen diren eskubideen urraketak ezagutzera eman nahi ditu Gipuzkoako SOS Arrazakeriak. Halaber, etorkinak kriminalen parera jartzeko joera gero eta hedatuagoa eta akats administratibo hutsa besterik egin ez duten lagunak CIES delako barneratze-zentroetan entzerratzeko politika ere salatzera dator.

Partaideak: Migreurop-eko Sara Prestiani, Laurence Hardouin (Baionako Cidame-ko lehendakaria) eta Peio Aierbe (Mugak/SOS Arrazakeria)

Noiz: abenduaren 11n
Non: Koldo Mitxelena Kulturuneko Ekitaldi Aretoan
Ordua: 19:00

SOS ARRAZAKERIA
Tel.: 943 32 18 11
E-mail: info@mugak.org
www.mugak.eu

MESA REDONDA

## UN PASO MÁS HACIA LA VULNERACIÓN DE LOS DDHH

LAS NUEVAS POLÍTICAS DE EXPULSIÓN DE PERSONAS EXTRACOMUNITARIAS DE LA U.E

En el 60º aniversario de la Declaración Universal de los DDHH, la propuesta desde SOS Racismo de Gipuzkoa es conocer las actuales vulneraciones de derechos implícitas en las nuevas políticas de expulsión y detención de personas extracomunitarias de la U.E. Asimismo, denunciar la creciente criminalización de la inmigración y su política de encierro en Centros de internamiento (CIES) a personas que sólo han cometido una falta administrativa.

Participan: Sara Prestiani de Migreurop, Laurence Hardouin ( presidenta de Cidame de Baiona) y Peio Aierbe ( Mugak/sos Racismo )

Día: 11 de diciembre
Hora:19:00
Lugar: Salón de Actos de Koldo Mitxelena

SOS RACISMO
Tel.: 943 32 18 11
E-mail: info@mugak.org
www.mugak.eu



## SAHARAR HENNA TAILERRA ETA TE DASTAKETA

Luze doa sahararren sufrimendua. Harresiak zutik dirau oraindik eta herria bitan dago banatua. Etxera noiz itzuliko itxaroten ari diren bitartean, beraien ohitura eta kultura mantentzeko ahaleginean diraute. Emakume sahararrek henna erabiltzen dute beraien esku eta oinak apaintzeko, aspalditik eskuz, eta azken urte hauetan baita plantila batzuen laguntzaz ere. Abenduaren 12an Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan jaiotako neska batek henna lantegi bat egingo du Gaztelekura gerturatzen diren 13-17 bitarteko gazteekin, eta, bertan ere, lurralde okupatuetatik etorritako mutil batek prestatuko duen tea dastatzeko aukera izango dugu

Noiz: Abenduaren 12an
Non: Martuteneko Gaztelekuan
Ordua: 17:00etan

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 39 00 05
E-maila: haurtxoko_bidebieta@donostia.org

## TALLER DE HENNA SAHARAUI Y DEGUSTACIÓN DE TÉ

El sufrimiento de los saharauis viene ya de muy largo. La muralla sigue en pie y el pueblo está dividido en dos. Esperando un día volver a su casa, siguen esforzándose por mantener sus costumbres y cultura. Las mujeres saharauis utilizan la henna para adornar sus pies y manos, antiguamente lo hacían a mano en estos últimos tiempos a través de unas plantillas. El 12 de noviembre una chica nacida en los campamentos de refugiados de Tindouf realizá un taller de henna con los y las jóvenes de entre 13 y 17 años que se acerquen al Gazteleku y, además tendrán la oportunidad de probar el té hecho por un chico que llega también desde los territorios ocupados.

Día: 12 de diciembre
Non: Gazteleku de Martutene
Hora: 17:00

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 39 00 05
E-mail: haurtxoko_bidebieta@donostia.org



## LANTEGIAK
## GUZTION MUNDUA

Bidebietako haurtxokoak, azaroan zehar, munduan dauden bestelako kulturak ezagutzeko jarduera batzuk antolatu ditu txikienentzat. Zenbait lantegi antolatuko dira, besteak beste, eskulanekoak eta idazketakoak. 6-12 urte bitarteko umeek beraien izena hizkuntza ezberdinetan idazten ikasiko dute, munduan zehar ibilbide bat eginez. Beste herrialde batzuetako jokoetan jolasten eta hauen dantzak ikasten beste kultura batzuk ezagutuko dituzte.

Noiz: abenduaren 12, 20 eta 25ean
Non: Bidebietako Haurtxokoan

GAZTERIA ETA GIZA ESKUBIDEAK ATALA
Tel.: 943 39 00 05
E-mail: haurtxoko_bidebieta@donostia.org

## TALLERES
## EL MUNDO DE TODOS Y DE TODAS

Durante el mes de Noviembre, el Haurtxoko de Bidebieta organiza para los y las más pequeñas distintas actividades para dar a conocer las diferentes culturas que existen en el mundo. Se llevarán a cabo diversos talleres, de trabajos manuales, de escritura... Los niños y niñas de 6 a 12 años aprenderán a escribir su nombre en diferentes idiomas, haciendo un recorrido a través del mundo. Conocerán otras culturas, jugando a juegos y aprendiendo danzas de otros países.

Fecha: 12, 20 y 25 de diciembre
Lugar: Haurtxoko de Bidebieta

SECCIÓN DE JUVENTUD Y DERECHOS HUMANOS
Tel.: 943 39 00 05
E-mail: haurtxoko_bidebieta@donostia.org



## SOLIDARITZA EGUNA

Urte honetan ere Ibiliz Solidaritza Taldeak Solidaritza Eguna antolatu du. Jardunaldi honetan herri ezberdinen errealitateak ezagutuko ditugu. Bidezko merkataritzako postua, umeentzat lantegiak, pintxoen postuak, hennazko tatuajeak… Halaber GKE eta talde ezberdinek jarritako postuak edukiko ditugu.

Noiz: abenduaren 13an
Ordua: 16:30tatik aurrera
Non: Altzan

ALTZAKO IBILIZ SOLIDARITZA TALDEA
Tel.: 943 35 40 65
www.solidaritza.org

## DÍA DE LA SOLIDARIDAD

Un año más Ibiliz Solidaritza Taldea organiza el Día de la Solidaridad. Una jornada de sensibilización donde a través de diferentes actividades conoceremos realidades de otros pueblos. Puesto de Comercio Justo, talleres para niños y niñas, puestos de pintxos, tatuajes de henna… Asimismo contaremos con stands de diferentes grupos y ONGs.

Fecha: 13 de diciembre
Hora: a partir de las 16:30
Lugar: Alza

ALTZAKO IBILIZ SOLIDARITZA TALDEA
Tel.: 943 35 40 65
www.solidaritza.org



HITZALDIA

## HAURTZAROA ETA EMAKUMEAK GUATEMALAN

Lankidetza eta Unicefeko Advocacy-ren ordezkari batek, Guatemalako Iger irratiaren lankide boluntario batekin, Guatemalako auzo marjinatuenetan eta nekazaritza eremuetan garatzen dituzten hezkuntza programak aurkeztuko dizkigute: pobrezia egoera, desnutrizio kronikoa, emakumearen hezkuntza kanpainak, gazte talde batzuen biolentzia eta honen zergatiak…

Noiz: abenduaren 16a
Non: Tomasene Kultur Etxea
Ordua: 19:00

UNICEF, HIRUGARREN ADINA HIRUGARREN MUNDURAKO
Tel.: 943 36 16 05
E-mail: elkarteak@euskalnet.net

CHARLA

## INFANCIA Y MUJER EN GUATEMALA

La representante de cooperación y Advocacy de UNICEF, junto a una cooperante de la Radio Iger de Guatemala nos hablarán de los proyectos de educación que se llevan a cabo en los barrios más marginales y zonas rurales de Guatemala. Se analizará la situación de la pobreza, la desnutrición crónica, las campañas educativas para la mujer, la violencia de determinados grupos de jóvenes y sus causas…

Día: 16 de diciembre
Lugar: Centro Cultural Tomasene
Hora: 19:00

UNICEF, HIRUGARREN ADINA HIRUGARREN MUNDURAKO
Tel.: 943 36 16 05
E-mail: elkarteak@euskalnet.net



## SOS ARRAZAKERIAREN IV. ARGAZKI LEHIAKETA

## INTEGRAZIOA ETA KULTURARTEKOTASUNA: INTEGRAZIOA KIROLEAN ETA HAREN BIDEZ

Lehiaketa honek gogoeta kritikoa bilatzen du, betiere etorkinen egoera eta haiei buruz dugun pertzepzioa hobetzen laguntzearren. Oraingo honetan, kirolak integraziorako eta kulturartekotasunerako duen gaitasun handiari erreparatzeko aukera hautatu dugu. Izan ere, kirolean eta haren bidez gizarteharreman solidarioak, elkarlanekoak eta ez baztertzaileak eraiki daitezke.

"SOS Arrazakeriatik parte hartzeko gogoa duten guztiak gonbidatu nahi ditugu, kirolaren bidez kultura desberdinetako pertsonen artean berdintasuna islatzen duten eguneroko egoerak ikusgai jar ditzaten".

Lehiaketaren informazioa eta oinarriak, hona: www.mugak.eu
Aukeratutako argazkiekin erakusketa bat eta sarien banaketa egingo da.

Erakusketa: abenduaren 18tik-urtarrilaren 8ra.
Non: Lugaritz Kultur Extean
Ordutegia: Astelehenetik ostiralera 16:00-20.30
Eskola-oporretako ordutegia: Astelehenetik ostiralera 10-14

SOS RACISMO
Tel.: 943 32 18 11
E-mail: suscripciones@mugak.org

## IV CONCURSO DE FOTOGRAFÍA SOS RACISMO

## INTEGRACIÓN E INTERCULTURALIDAD: LA INTEGRACIÓN EN, Y A TRAVÉS DEL DEPORTE

Este concurso pretende aportar una reflexión crítica que contribuya a mejorar la situación y la percepción que tenemos de las personas inmigrantes. En esta ocasión apostamos por poner la mirada en el potencial que tiene el deporte como herramienta de integración e interculturalidad. En el deporte y a través de él, es posible acoger relaciones sociales solidarias, colaborativas y no discriminatorias.

"Desde Sos Racismo queremos invitar a aquellas personas que deseen participar en esta edición, a que visibilicen situaciones de la vida cotidiana que reflejen la igualdad entre personas de diferentes culturas a través del deporte".

Información y bases del concurso en: www.mugak.eu
Con las fotografías seleccionadas se realizará una exposición y la entrega de premios

Exposición: 18 de diciembre-8 de enero
Lugar: Centro Cultural Lugaritz
Horario: de lunes a viernes 16:00-20:30
Horario vacaciones escolares: 10:00-14:00

SOS RACISMO
Tel.: 943 32 18 11
E-mail: suscripciones@mugak.org



## JAIALDI SOLIDARIOA
## BI IPUIN GAZI-GOZO

"BI IPUIN GAZI-GOZO" izenburuarekin Donostiako Musika eta Dantza Eskolak bere Jaialdi Solidarioa aurkezten digu, oraingo honetan musika eta dantzaren inguruko bi istorioekin osatuta. Lehenak Bosniako mendebaldeko txoko batera eramango gaitu: "Bazen behin batean Plavi Cujet izeneko parke eder bat. Egun batean, ordea, dena ilundu egin zen. Iluntasunetik eta lo-zorrotik ateratzeko, dantzariak, musikariak eta abeslariak behar beharrezkoak izango dira". Bigarren ipuinean, berriz, ironiaz eta umorez, ahotsa, dantza, eta haizezko, perkusiozko eta harizko tresnen artean sortzen diren gatazkak azalduko zaizkigu. Ikusiko dugu bakoitzak nolako adorearekin defendatzen duen bere tresna, bere estiloa eta bere zaletasuna gauza guztien gainetik. Jasotzen den dirua SOS BALKANES GKErentzat izango da.

Noiz: abenduaren 18an
Non: Victoria Eugenia Antzokian
Ordua: 20:00

MUSIKA ETA DANTZA UDAL ESKOLA
Tel.: 943 29 78 30
E-mail: udala_musika@donostia.org

## FESTIVAL SOLIDARIO
## DOS CUENTOS AGRIDULCES

La Escuela de Música y Danza de Donostia nos presenta este espectáculo que contará con dos cuentos a modo de hilo argumental. El primero de ellos nos lleva hasta un lugar de la Bosnia Oriental: "Erase una vez un hermoso parque llamado Plavi Cujej. Una mañana el sol salió un rato, pero vio que la oscuridad se apoderaba del lugar… solamente conseguirían despertarlo de su letargo la música y la danza". El segundo hilo argumental nos habla, con humor e ironía, de los conflictos que se generan entre el canto, la danza, la percusión, el viento o la cuerda, con intérpretes que defienden con pasión sus instrumentos y su dedicación. Los fondos recaudados serán para la ONG SOS BALKANES

Día: 18 de diciembre
Lugar: Teatro Victoria Eugenia
Hora: 20:00

ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA Y DANZA
Tel.: 943 29 78 30
E-mail: udala_musika@donostia.org



## PALESTINAKO GATAZKAREN ARRAZOIAK. EUSKAL BRIGADISTAK PALESTINAN

Udara honetan Komite Internazionalistak erakundeak 4 brigada antolatu ditu Palestinan herri honi elkartasuna adierazteko xedez. Hitzaldi honetan Palestinan egondako brigadistek han ikusi eta ikasitakoa kontatuko dute, eta, argazki proiekzio baten laguntzarekin Palestinako gatazkaren arrazoiak aztertuko dira eta, era berean, zein bide erabiltzen duen Israelgo estatuak palestinarrak beraien lurraldeetatik kanporatzeko (harresia, militarren presioa, hilketak...) besteak beste. Palestinarren eguneroko bizimodua nolakoa den ikusi ahal izango dugu eta baita planteatzen diren irtenbideak aztertuko ere.

Noiz: abenduaren 18an
Non: Udal Liburutegiaren Ekitaldi Aretoan
(San Jeronimo kalean)
Ordua: 19:30

KOMITE INTERNAZIONALISTAK
Tel.: 630 57 95 21
E-mail: kidonostia@euskalnet.net

## LAS CAUSAS DEL CONFLICTO PALESTINO. BRIGADISTAS VASCOS EN PALESTINA

Este verano el grupo Komite Internazionalista ha organizado 4 brigadas en Palestina, con objeto de mostrar su solidaridad a este pueblo. En esta charla, los brigadistas nos van a contar lo que han visto y escuchado allí, y con ayuda de una proyección de fotografías se van a analizar las razones del conflicto, que métodos utiliza el estado de Isrrael para expulsar a los palestinos y palestinas de sus territorios (la muralla, la presión militar, los asesinatos…). Podremos conocer la manera de vivir cotidiana de los y las palestinas y también analizar las alternativas que este pueblo se plantea

Día:18 de diciembre
Lugar: Salón de actos de la Biblioteca Municipal
(c/ San Jerónimo )
Hora: 19:30

KOMITE INTERNAZIONALISTAK
Tel.: 630 57 95 21
E-mail: kidonostia@euskalnet.net



## GGKEEI OMENALDIA

Donostia Entremundos-San Sebastián Munduen Artean 13. urteurrena bete du aurten eta formatu berri batekin egin du. Donostia munduen artean kokatzen da, eta gure herrira askotan ahaztuak dauden errealitateak ekartzen ditu. Donostia Entremundosek informatu eta donostiarren kontzientzia solidarioa erne mantendu nahi du. Hau guztia posible da urte hauetan guztietan zehar lanean jardun duten hainbat eta hainbat GGKE eta elkarteei esker. Berdintasun eta Lankidetza Ataletik eskerrak eman nahi dizkizuegu Donostia isilarazitako errealitateen ahotsaren eszenatokia izatea posible egiten duzuen guztioi.
Topaketa honetara hurbil zaitezten gonbidatzen zaituztegu.
Mila esker guztiori

Noiz: abenduaren 19an
Lekua: Donostiako Udalbatzar Aretoan
Ordua: 19:00

BERDINTASUN ETA LANKIDETZA ATALA
Tel.: 943 48 10 98

## HOMENAJE A LAS ONGD

Donostia Entremundos-San Sebastián Munduen Artean ha cumplido este año su 13 Aniversario y lo ha hecho con un nuevo formato. Donostia se sitúa entre los mundos y trae a nuestra ciudad todas aquellas realidades, muchas veces olvidadas. Donostia Entremundos quiere informar y mantener despierta la conciencia solidaria de los y las donostiarras. Todo esto es posible gracias al trabajo de tantas y tantas ONGD y entidades que vienen trabajando a lo largo de todos estos años. Desde la Sección de Igualdad y Cooperación queremos agradecer a todas las personas que habéis hecho posible que Donostia sea el escenario de la voz de las realidades silenciadas.
Os invitamos a que acudáis a este encuentro.
Gracias a todos y todas.

Día: 19 de Diciembre
Lugar: Salón de Plenos del Ayuntamiento de Donostia
Hora:19:00

SECCIÓN DE IGUALDAD Y COOPERACIÓN
Tel.: 943 48 10 98



## ERAKUSKETA
## SAHARAKO BEGIAK

Ekonomikoki gutxi garatutako herrialdeetan ekidin zitekeen itsumenaren kausa asko zuzenean pobreziarekin loturik daude. Munduko Begiak Fundazioak pertsonen bizitza kalitatea hobetzen laguntzen du, eta ikusmena berreskuratzen die; lan egiteko, ikasteko, familia artatzeko eta besteetarako gaitasuna emanez komunitateen garapenaren alde ere egiten du. Argazki hauek Munduko Begiak Fundazioak Tindoufeko errefuxiatu sahararren kanpamentuetan egindako lana erakusten digute.

Noiz: Abenduaren 22tik-urtarrilaren 17ra
Non: Ernest Lluch Kultur Extean
Ordutegia: Astelehentik Ostiralera: 10:00-14:00 / 16:00-20.30
Larunbat eta zubietan: 10:00-14:00 / 16:30-20:00
Arratsaldez itxita: abenduaren 24 eta 31n 19:00etatik aurrera

OJOS DEL MUNDO FUNDAZIOA
Tel.: 656 75 07 15
E-mail: kikelan@euskalnet.net

## EXPOSICIÓN
## OJOS DEL SAHARA

Muchas de las causas de la ceguera evitable en los territorios económicamente menos desarrollados están directamente relacionadas con la pobreza. La Fundación Ojos del Mundo contribuye en la mejora de la calidad de vida de las personas devolviéndoles la vista: la capacidad de trabajar, de estudiar, de atender a la familia… contribuyendo, de este modo también, al desarrollo de sus comunidades. Estas fotografías nos muestran el trabajo realizado por Ojos del Mundo en los campamentos de refugiados saharauis de Tindouf.

Fecha: 22 diciembre-17 enero
Lugar: Centro Cultural Ernest Lluch
Horario: Lunes a viernes: 10:00-14:00/16:00-20:30
Sábados y puentes: 10:00-14:00/16:30-20:00
Cerrado por las tardes: 24 y 31 diciembre a partir de las 19:00

FUNDACIÓN OJOS DEL MUNDO
Tel.: 656 75 07 15
E-mail: kikelan@euskalnet.net



## ABESBATZA-KONTZERTU SOLIDARIOA

Hainbat abesbatzetako berrehun bat artista kantarik eskainiko digute kontzertu solidario hau, zeinaren etekinak Indian zenbait proiektutan diharduen Calcuta Ondoan GKEarentzat eta AGIPAD Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentzioarako Gipuzkoar Elkartearentzat baitira. Kontzertuak artista gonbidatu baten ekitaldi berezia ere izango du.

Noiz: Abenduaren 27an
Non: Kursaaleko Kubo handian
Orduua: 20:00-21:30

CALCUTA ONDOAN, AGIPAD
Tel.: 943 27 92 25
E-mail: info@calcutaondoan.org

## CONCIERTO CORAL SOLIDARIO

Unos 200 artistas cantores y cantoras de grupos corales distintos nos ofrecerán este concierto solidario cuyos beneficios irán a parar a Calcuta Ondoan, ONG que desarrolla proyectos en la India y a Agipad, Asociación Guipuzkoana de Investigación y Prevención del Abuso de Drogas. El concierto contará con una actuación especial de un artista invitado.

Día: 27 de diciembre
Hora: 20:00-21:30
Lugar: Cubo grande Kursaal

CALCUTA ONDOAN, AGIPAD
Tel.: 943 27 92 25
E-mail: info@calcutaondoan.org



## UNICEF KONTZERTUA

UNICEF-ek Eguberritako “Haurrena haurrentzat” ohiko kontzertuaren 11. edizioa ospatuko du, Donostiako Orfeoiaren Gazte Orfeoiak eta Orfeoi Txikik eskainia. Elkartasun ahotsok UNICEF-i laguntza eman nahi diote, haren mezua zabal dezan eta herrialde txirotuenetako haurren aldeko garapen programetarako diruak bil ditzan.

Noiz: Abenduaren 28an
Ordua: 19:00
Non: Kursaal Auditorioa
Sarrera: 12 euro

UNICEF
Tel.: 943 27 11 61
e-mail: gipuzkoa@unicef.es

## CONCIERTO UNICEF

UNICEF celebra la undécima edición de su tradicional concierto de Navidad “De los niños y niñas para los niños y niñas”, ofrecido por el Orfeoi Txiki y el Gazte Orfeoia del Orfeón Donostiarra. Con sus voces de solidaridad, ayudarán a UNICEF a difundir su mensaje y a recaudar fondos para sus programas de desarrollo a favor de la infancia en los países más desfavorecidos

Día: 28 de Diciembre
Hora: 19:00
Lugar: Auditorio Kursaal
Entrada: 12 euros

UNICEF
Tel.: 943 27 11 61
E-mail: gipuzkoa@unicef.es



DONOSTIA ENTREMUNDOS
SAN SEBASTIAN MUNDUEN ARTEAN

Estudio Lanzagorta

2.300 ale 0,71 euro aleko

**Donostiako Udala**
**Ayuntamiento de San Sebastián**
Berdintasun eta Lankidetza Atala
Sección de Igualdad y Cooperación

DONOSTIA KULTURA

SAN SEBASTIAN DONOSTIA 2016

Donostia Hiri Hezitzailea
San Sebastián Ciudad Educadora